



Greba orokorra Hego Euskal Herrian



ELA, CCOO eta LABeko idazkari nagusiak.

Zeharo arrakastatsu eritzi diote grebari sindikatuek

DONOSTIA

Atzoko grebak «erabateko arrakasta» izan zuela azpimarratu zuten Hego Euskal Herriko sindikatuek lanuzterako deialdiaz eginiko balorazioetan. ELA, LAB, CCOO eta USOk oso positibotzat jo zuten ihardunaldia.

ELAk egun osoan izaniko «laseritasun eta gizabidea» nabarmendu zuen agiri baten bidez. Sindikatu horren arabera, grebaren arrakastak «langileak maiztaren 27ko deialdiarekin bat» datozela erakutsi du. Langilegoak greba eragin duten aldarrikapenak bere egitea izan zen arrakastaren oinarria ELAren esanetan.

«Erantzun honek mugimendu sindikalak Euskal Herrian daukan garrantzia agertu du eta indar honi kasu egin behar zaio lan munduari dagozkion erabakietan» segitu zuten EAEko sindikatu nagusiak. ELAren iritziz, «Gobernuak langileak azaldu dioten kontrako jarrera izan beharko luke kontutan inposaketan oinarritu den jokaera zuzentzeko». Ho-

nen bidez, «Euskal Herritik lanpostu gehiago sortzeko egiten ari den eskaerari erantzun beharko lioke» Madrilgo exekutiboak.

LABen ustetan ere grebaren arrakasta «erabatekoa» izan zen. Sindikatu abertzaleak azaldu legez, «grebak gizartearen sentsibilizazioa eta gaitzespena utzi du agerian PSOEren politika ekonomiko neoliberal dela kausa».

LABek EA eta EUE kritikatu zituen «beren isiltasun edo pasibitateaz greba deialdia boikoteatu nahi izan dutelako». Alderdi hauek ere izan dira «galtzailak» LABen arabera, «gizartearen gehiengoaren erreibindikazioei bizkarra emateagatik».

CCOOk adierazi bezala, Gobernuak 'dekretukada' eta Greba Legearen proiektua erretiratu egin behar du, baita Bateratasun Plana negoziatu ere. CCOOk berehalako negoziazio bideak zabaltzeko eskatu die Madril eta Gasteizko gobernuei.

USOren esanetan, euskal langileen erantzuna «pizgarria» izango da gaur, maiatzak 28, Espainian egingo den grebarako.

Confebask: «Greba askatasun eta lan eskubideari eraso izan da»

DONOSTIA

Maiatzaren 27ko greba deialdia herritarren askatasun eta lan egiteko eskubidearen aurkako atentatua izan zela eman zuen aditzera Confebask-ek.



Euskal Enpresarien Elkarteak atzo esan zuenez, sindikatuek ez dituzte bete garraioari zegozkion gutxienezko zerbitzuak. «Garraio publikorik ezak oztopo handiak jarri dizkie langileei lantegiara joateko» zehaztu zuten enpresariak. Lantegiak hasiera hasieratik zabalik izan ziren «enpresariak hartutako erabakiari» segiturik.

Confebask-ek «piketeen ekintza etengabeak» salatu zituen. Ekintza hauen bidez, fabriketan sartzea bezalatu zaie «beren ka-

buz bertaratutako lagunei». EAEko enpresarien hitzetan, «kasu askotan langileek greba egin behar izan dute piketeen mehatxuen ondorioz, nahiz eta lehenago lanuztearen kontra demokratikoki azaldu».

«Halako moduetan egindako grebaren emaitzek ez dute baliorik» enpresarien esanetan, «eta emaitza horiek ezin ditu inork bereganatu, herritarren erabakitzeko askatasuna ez bait da azaltzen». Prozedura horiek «greba deitu dutenen izaera eta sinesgarritasuna zein nolakoak diren» erakutsi dutelakoan daude enpresariak. Honi erreparaturik behar beharrezkoa da, Confebasken iritziz, greba egiteko eskubidea modu zibilizatuan arautuko duen legea egitea.

Euskadiko Kutxaren Kreditu Gaztearekin.



U.T.Ba % 0,0ETIK % 6RA ALDATZEKO (INTERES NOMINALA % 5,869) ● LIBRETA ETA TOLOITEGIA ● 50.000 PTA-KO KREDITU IRAUNKORRA OSO INTERES ONEAN ● ETA OPARI GISA BIDEO BAT GEHIEN ENTZUTEN DEN MUSIKAREKIN -DIRE STRAITS- KONTUA IREKITZEN DUTEN LEHEN 4.000 GAZTEENTZAT ● **ETA GEHIAGO...** BIDAIAK ETA HIZKUNTZ IKASTAROA ATZERRIAN ● GAZTEAREN INFORMAZIORAKO DOHAINEKO TELEFONOA ● **ETA ASKOZ ERE GEHIAGO...** INFORMA ZAITEZ GUZTIAZ 900 20 00 00 ZENBAKIAN EDO ZATOZ HURBILLEN DUZUN EUSKADIKO KUTXAREN SUKURTSALERA ● EUSKADIKO KUTXA. ORAINGOA UNERIK EGOKIENA.

GAZTEAREN
INFORMAZIORAKO TELEFONOA
900 20 00 00

Euskadiko
Kutxa

CAJA LABORAL POPULAR
LAN KIDE AVRREZKIA